

Bertso berriak Mailoperi jarriak: Juan Mari Irastorza **KUXKUXEAN:** Abenduko zorion agurrak
Ekinaren ekinez: Natalia Azkona **Haizeak eramana:** Dani Pascual **KULTURA:** 25. Urteurrena

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkari

“La clave está en trabajar en equipo”

Juan Mari Irastorza (Lekunberri)

Bertso berriak

Mailoperi jarriak






Natalia Azkona ha sido nombrada alcaldesa de Lekunberri. Es la primera alcaldesa nombrada en el municipio y primera en sustituir a José Mari Ayerdi después de 31 años en el cargo.

Elur panpina

Eguberri hauetan proposamen berri batekin gatoz. Elur panpin honi osagarriak falta zaizkio. Panpina moztu eta bere osagarriak sortu eta itsasi beharko dizkiozue.

Bidali zuen elur panpinen argazkiak abenduaren 22a baino lehen mailope@labrit.net helbidera.

Parte hartzaileen artean Denonartean argitaletzeko bi liburu zozketatuko ditugu.



Antsoenea
ARIDU LATAKAREN ESNE GORDINEZ
EGINDAKO GAZTA ONDUA

EDUKI EGOKI
ELABORADO
A MANO

TF. 948 51 34 68 . antsoeagaztak@gmail.com . Urtegi

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etkez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

**BERTAKO
HARAGIA**
Txistorra, txorizoa,
salteixak,
sukaldatautako platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.
Antigua Kalea N°7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

04> Iritzia

08> Luze: Leire Aranburu



10 > Mailope erderaz?

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da eta horren arira Tokikomek proposatutako ekimenarekin bat eginez lau orrialde erdaraz prestatu ditugu, aldizkaria euskara hutsean izatearen garrantziaz ohar gaitzen.



14 > Dani Pascual

Dani Pascual lekunberriarra Ekuadorren dabil lanean. Berarekin izan gara bertan bizi duen egunerokoaren berri izateko.

19> Lauburua: Eraikin efiziente eta jasangarriak

20> Kuxkuxean: Abenduko zorion agurrak

22> Batzarre

24> Kultura: Sanmartinak



25 > Mailoperen 25. urteurrena

Mende laurden bete du gure aldizkariak eta urteurrena behar bezala ospatzeko zenbait ekitaldi antolatu ditugu, besteak beste, abenduaren 13ko Mailope lasterka. Dagoeneko kilometro erdiak salgai daude Mitxausenean eta Araizko udaletxean. Animatu eta parte hartu!

26> Kirola: Behobia-Donostia lasterketako emaitzak

30> 20 urte bidean

31> Kontu txikiak



Eusko Jaurlaritzak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Mailope doan banatzen da honako herrietan:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiuro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

Argitaratzen du: Mailope Kultur Elkarteak.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo, Alfredo Dufur, Nerea Urbizu eta Andoni Tolosa.

ARGAZKIAK: Labrit, Plazaola Partzuergo Turistikoa, Iosune Zabala, Dani Pascual, Plazaola Partzuergo Turistikoa, Tokikom, Igor Otermin, Monika Gastesi eta Ene Kantak.

PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

MAKETAZIOA: Mikel Azpilikueta.

TIRADA: 1.600 ale.

Lekunberriko poligonoa zabaldu baino lehen, poligonoa berpiztu espekulazioa tentatu babe.

Lekunberriko Udalak, uztailaren 30eko batzarrean, Udal Planeako aldaketa puntuala onartu zuen. Aldaketa honekin poligonoa industrial handitu egiten da eta gaur egun landa eremu diren 50.000m²ri eragiten die. Horietatik 21.000m² bihurtzen dira partzela industrialak eta poligonora erasten zaie.

Non dago arazoa? Lekunberriko Poligonoan eta partzela desberdinetan sakabanatuta, gutxienez, 62.000 m² daude urbanizatuta eta eraiki gabe. Lekunberri jarraitu den politika da honen arrazoa: lur industrial merkea topatu dute enpresek eta, inongo baldintzarik gabe, oso lur sail handiak erosi, bada ez bada. Lurra erosi bai, baina ez dute enplegurik sortu.

Horrekin batera ezagunak dira ere poligonoan hutsik dauden eraikinak (Azysa, Maderas Arraetxe, Lehenagoko Calortecnica etab.). Horrez gain, poligonoan badaude beste 37.000m² eremu libre publikoak direnak eta oso degradatuta daudenak eta ingurumen aldetik oso balore txikiarekin (Agrozumos atzean dagoen eremua da adibide nabarmen bat).

Orain, Lekunberriko Udalak poligonoa zabaldu nahi du ingurumen-balio handiko lurak erabiliz. Lur hauek errekatik oso gertu daude. Urak har dezaken zonak dira (inundableak), eta bere balore ekologikoengatik nabarmentzen dira.

Hala ere, zabalkuntza justifikatzeko, poligonoan eskura dagoen lurra oso gutxi dela argudiatzen dute, nahiz eta aurreikusten diren aldaketen artean partzela pribatu bat handitzea dagoen. Aipatutako partzela handitzeko, bere hegoaldean dagoen eremu libre publiko bat deuseztatzen da (2024 m² partzela, pribatu bihurtzen dira). Aipatutako partzela pribatu horrek, gutxienez 7.000m² eraiki gabe ditu eta partzelako jabeek ez dute aurreikusten inongo proiektu zehatzik azalera horien erabilerarako.

Eztabaida hau dena saihesteko, Udalak herritarren parte hartzeko eskubidea urratu egin du.

Onartutako aldaketan, 5/2015 legedi Foralak ezartzen duen moduan, herritarrek partaidetza egiazkoa eta eraginkorra izan behar zuen; horretarako, herritarrentzako partaidetza-prozesu bat erabili behar zen, kontsulta-izaerakoa, egin ez dena.

Poligonoa biziberritzeko helburuarekin Kalaxka elkarteak alegazioak aurkeztu ditu, egin daitezken ekintza eta betebeharren proposamen zehatzekin. Hutsik dauden lur eta eraikin pribatuak berpizten ahalegindu eta eremu publiko libreak berreskuratu. Era berean, poligonoko balore ekologikoa handitzearen, bere azpitik pasatzen den erreka azalera zehaztu dugu.

Hori jasotzen duen plan integral bat egitea eskatu diogu Udalari eta gutxienez hori egin arte, ez dadila suntsitu balore ekologiko handia duten lurak.

Larraunen, 2015eko azaroaren 3an.

Kalaxka.

Harremanetarako: kalaxka@gmail.org

Eskerrik Asko Larraun, Zorionak Erribera

Bukatu da Errigoraren kanpaina, Erriberan euskaldunak eta euskaltzaleak laguntzeko Erriberako produktuak erosiz. Horrela, biltzen den diruaren %25 euskararen aldeko programak egitera bideratzen dira, gainontzekoa Erriberako nekazarientzat utziz (enpresa txikiak, kalitateko produktuak, lan baldintzak zainitzen dituztenak). Aurten, Larraunen 33 familiek Erriberako produktuen saskiak hartu dituzte, denetara 1.650 euro bilduz. Euskal Herria osoan 12.000tik gora saski banatuko dira. Beste behin ere izugarria izan da, eta denon artean posible izan da. Animo ba, lana ondo egin izanaren harrotasunarekin, goza dezagun eskuarteetan ditugun produktuez, ondo merezia dugu eta!

AEK eta Amaralar elkarteak

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

Hostal Betelu
<http://www.hostalbetelu.com>
Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak
Etorri eta on egin!
Erreserbak: 948513026 676145637

BETELU
PNEUMATIKOAK
TAILER MUGIKORRA
NEUMATIKO ALDAKETA ZULATZEEN KONPONKETA
Vicente Iriarte
T. 646 474 166
www.neumaticosbetelu.es

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA
Gruas y Talleres LARRAUN s.l.
Lekunberriko industriagunea, 21. nabea
31870 Lekunberri Nafarroa
Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com

Larraungo Udalak onartutako mozioa:

Larraungo Eh Bilduk Aurkeztutako Adierazpen Institutuzionala, Askapenari Buruzkoa.

Erabakia: Larraungo Udal honek honakoa adierazten du:

- 1) Elkartasun internazionalista bultzatzeko lanean diharduten erakunde eta pertsona guztiekiko babesa;*
- 2) ASKAPENA, ASKAPEÑA, HERRIAK ASKE eta ELKAR TRUKE-rekiko nahiz inputatutako bost euskaldun internazionalistekiko elkartasuna;*
- 3) ASKAPENA, ASKAPEÑA eta ELKAR TRUKE-k egiten duten lana ez oztopatzeko exigentzia;*
- 4) Walter Wendelin, Gabi Basañez, Unai Vazquez, Aritz Ganboa eta Dabid Soto euskaldun internazionalisten aurkako epaiketa euren absoluzioaz amaitzeko, dagozkien eskubideak itzultzeko eta zor zaien erreparazioa emateko erreklamazioa.*

EH BILDU HAUTESKUNDE OROKORREN AURREAN

Hurrengo abenduaren 20an espainiar hauteskunde orokorrak egingo dira. Eta EH Bildutik hauteskunde hauek Euskal Herriaren askatze eta eraldaketa prozesuan beste urrats bat emateko aukera gisa kokatzen ditugu. Baita ere Nafarroan aldaketa politikoan sakontzeko.

Horregatik hauek lirateke gure lan ildo nagusiak:

1-Nafarroak eta Euskal Herritarrok orokorrean ezinbestekoa dugu gure erabakiak guk hartzea inongo inposizio eta mehatxurik gabe. Madrilik datozen eraso zentralisten aurrean, gure ahots propioa indartu eta defendatuko dugu. Herri bezala dugun erabakitze eskubidea aldarrikatuz eta honetan sakonduz.

2-Eskubide sozialetan oinarritutako aldaketa soziala beharrezkoa da. Krisi ekonomikoaren aitzakiarekin, eskubide sozialak murriztu eta urratzen ari da Espainiako estatua. EH Bildu eskubide sozialak sustatu eta indartzeko lanean jarraituko du

arlu ezberdinetan: Langileriaren eskubideen defentsa (Lan erreforma, Gizarte Segurantza, negoziazio kolektiboa, lan banaketa, aberastasunaren banaketa), emakumeon eskubideak defendatuko ditugu (abortua, eskubide berdintasuna, ...), natura eta ingurumenaren defentsan,...

3-Beste nazioetako aliatuekin elkarlanean arituko gara; estatuko ezker sektoreekin aliantzak eta sinergiak eraikitzen jarraitu nahi dugu, eta nazioarteko elkartasunean sakontzera goaz.

4-Euskal Herriko gatazka politikoak utzitako ondorioen aurrean espetxe politika bukatzeko lan egingo dugu, Euskal presoentzako bideak proposatuz eta landuz. Baita ere biktima guztien aitortza, sufrimendu guztiak, min guztiak, kalte guztiak erreparatzeko lan egingo dugu, bake justuaren alde hain zuzen.

Horregatik EH Bildutik herri honen etorkizuna justizia sozialean, askatasunean eta irizpide demokratikoetan oinarritu behar dela ozen entzunarazi eta lan egingo dugu Madrilan.

EH BILDU

- 5 -

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

ETXEZ ETXEKO EGUR SALMENTA

URTE OSOAN ZEHAR

EGURRA
EXPRES

☎ 635 90 91 95

✉ promanburillo@gmail.com

Erbiti, Basaburua

Gure egurraren kalitatea eta prezioak ikusten dituzunean kea aterako diezu

Bertso berriak.

Mailoperi jarriak

Juan Mari Irastorza (Lekunberri)



*Larraun ez akatzeko
emaiguzu giltza
bere alde lan egin,
hori da baldintza
nola horretan guk, geuk
dugun azken hitza
maita gure bailara
ta euskeraz mintza*

*Euskerak sufritu zun
hemen gorrotoa
eskolan ikasteko
nahiko oztopoa
lagundu behar zaio
hori da gakoa
orain arte egina
ez baita nahikoa*

Alfredo Dufurri puntua: _____

Ate joka daukagu
Durangoko azoka

Oinak: _____

Agurra, egurra, elurra, xamurra



Doinua: "Larraungo zortzikoa"

- 6 -



EUSKARAREN EGUNA

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da. Aurtengoan Euskara Zerbitzuaren ekimenez eta herritarren parte hartzearekin spot txiki bat grabatu dute eta abenduaren 3tik aurrera ikusgai egongo da sarean: <https://www.youtube.com/channel/UCfviL3pCOP3wLPA8qQA-tvQ/videos>



BIGARREN ESKUKO AZOKA

Abenduaren 3, 4, 5 eta 6an bigarren eskuko azoka eginan da Lekunberriko frontoian. Arropa, jostailuak, liburuak eta bestelako produktuak aurkituko dituzu prezio ezinhobean. Animatu eta hurbildu zaitez!



OLENTZEROREN BILA

lazko arrakasta ikusita, aurten ere Olentzeroren bila irtengo dira Astitzen abenduan. Basajaun eta Mari Domingiri esker lortu zuten haurrek Olentzerori eskutitzak eskura ematea. Ea aurten ere aurkitzen duten...

MUNDUAREN AZKEN MUTURREKO EROSLEA

 **EROSKI** online
zurekin



EROSKI online Supermerkatuan lurraldearen %100era iristen gara eta Euskadiko eta Nafarroako landatar eremu guztietan ematen dugu zerbitzua. Zauden lekuan zaudela ere zurekin egoteko, zure munduaren, gure lurraldearen azken muturrean egonda ere.

eroski.es

lurraldearen
%100   -era
iristen gara



Leire Aranburu

LUZE

Infernuan ere bada bakea



Botikan zain zegoen neska gazte xume bat bere semea besoetan zeukala sartu zenean, amak larritua zirudien. Semea oso gaixorik zegoela eta ea ilaran bere lekua utziko ote zion galdetu zion. Bera ukendu baten bila besterik ez zen joan botikara, baina ez zituen multikotxoaren negarrak gehiago entzun nahi, ez zituen inoiz haurrak gustuko izan. Neskari ezezkoa esan zion, ukendua ahalik eta azkarren erosi eta handik irten besterik ez zuen egin nahi.

Ukendua erosi, botika hartatik irten eta etxerantz zihoala entzun zuen lehen aldiz zarata hura, ez zuen inoiz lehenago halakorik entzun, ez zekien nondik zetorren. Eta bat-batean itzalak, txori erraldioen antzera, ondoren isiltasuna. Ez zuen ezer entzuten, lurrean zegoen, dena zen ulergaitza, zorabiatua sentitzen zen, norbaitek zerbait zioen, baina ez zekien zer eta nork. Norbaitek lurretik altxatzen lagundu zion, atzera

begiratu eta duela segundo gutxi zutik zegoen botika kiskaltzen ari zen. Gero, ezer ere ez!

Esnatu zenean bere gelan zegoen, zorabiatu, buruko mina zeukan, ezi-

nean eseri zen eta gorputza zauriz betea zeukala konturatu zen. Neska-meak sartu zen orduan eta gertatukoa kontatu zion, herria bombardatu zuten bi egun lehenago. Bera lurrean aurkitu zuten buruan kolpea hartuta, konortea galdu zuen eta etxera eraman zuten. Kristaltxoak zituen gorputzean, baina zorionez zauriak ez ziren larriak, sendatuko ziren eta ez zioten ia markarik utziko. Buruko mina berriz egun gutxitan pasako zitzaion.

Leihotik begiratu eta dena zegoen beltz. Entzuten ziren zarata bakarrak zerutik zetozen, noizbehinka zerutik erortzen ziren bonba horiek... Eta gero oihuak. Herriko apaizak eta amonak baino ez zioten hitz egiten infernuaz, eta horiek ere gutxi, txikitan gaiztakeriak egiten zituenean beldurtzeko bakarrik. Baina infernuak horrelakoxea izan behar zuela pentsatzen zuen egunero.

Ordurako baziren hiru aste han sartuak zeramatzanak, edo hori uste zuen behintzat, ez zegoen oso ziur, erlojurik ez zuen eta eguzkiak ere alde egin zuen leku hartatik. Egunak ohean etzanda pasatzen zituen logelan bakarrik. Egunero pare bat aldiz etortzen zitzaion neskamea. Janari beroa eta botikak ekartzen zizkion eta zerbait behar ote zuen galdetu.

Ez zuen inork hala ikusterik nahi. Gauero izaten zituen amets gaiztoak eta izerditan esnatzen zen goizetan: Irudi horiek... Garrasiak, sua, malkoak... Neska eta bere haurra... Bere buruarekin nazka sentitzen zuen.

“Infernuak horrelakoxea izan behar zuela pentsatzen zuen egunero”

Goiz hura ezberdina izan zen ordea, esnatu eta bere gelan jarraitzen zuen, baina ez zuen ezer sentitzen, leihotik begiratu eta dena zegoen ondo, haurrak entzuten zituen jolasean, ez ziruditen triste. Amets bat izan zen dena, ez bonbarrik, ez infernurik. Dena zegoen beti bezala, bere lekuan eta behar bezala. Orduan konturatu zen bere ohean jarraitzen zuela, betiko elbarria zela, lepotik behera mugitu ezin zuen betiko elbarria. Eta zoriontsu sentitu zen.



Heriotz duinaren eskubidea

Kaixo Mailope zaleak! Ez noa Palestinaz, Siriaz, Parisez.... hitz egitera. Izenburuagatik izan daiteke, baina horiei buruz nahiko hitz egiten dela iruditzen zait eta badakizue ni gurera etorri zalea naizela gaiak lantzerakoan. Uda-zkena izango da, gerra giroa, Andreak eta Mikelek egin zuten zaharrei buruzko artikulu bikaina, familiako heriotz bat... Heriotzaz ausnartzen nabil azken aldian. Begiratu dut nire artxiboetan eta, susmatzen nuen modura, aurretik ere idatzia nuen Mailopen heriotzaren inguruan, 2010eko otsailean izan zen. Orduan mezu nagusia ez geniokela heriotzari beldurrik izan behar zen. Gaur hori osatzen joango naiz.

Testu hau nitaz hitz egiteko erabiliko dut, ez baitut egirik gai honetan. Norberak izango du bere iritzia. Hitz egin beharra dugula da oraingoz niretzat egia bakarra. Bai, eta badakit errazagoa izango dela kontua baikor begiratzea berez heriotza "urrutiago" ikusten dudana bizi parte honetan, baina, bueno, nahi eta ez gertatu behar den zerbaiten aurrean nire barnean eta ahal bada nire inguruan giro egokia prestatzen hastea garrantzitsua dela uste dut.

Hotzari beldur izan edo ez, niretzako beldurgarria den zerbait zera da, duina ez den zahartzero bat izatea. Azken urteotan asko "aurreratu" da medikuntza, luzeago bizirauteko eginahalak egin daitezke pilulekin, zainketa bereziekin etab. Eta gure bizitza asko luzatu daiteke. Baina bizi poza luzatzen al da arnasarekin batera? Bai, badakit norberaren esku daudela gauza asko, baina orokorrean, zahartzearen inguruan baikortasunik ez dagoen gizarte batean, zertarako luzatu zahartzeroa?

Gainera, zahartzeroan gerta daitezkeen aurrean, pertsonak dirua edo gauzak edukitzeko eta pilatzeko beharrean



jartzen gaitu gizarteak, bestela "auskalo ze zahartzero tokatuko zaigun...". Honek, bizitzan zeharreko ekintza asko ere arriskurik hartu gabe egitera garamatza, lan aukeraketa, mugikortasun aukeraketa... Dirua pilatzea da garrantzitsua badaezpada ere, seguroak, jubilazio tasak... Arriskurik ez hartzeak askotan bizi poza akatzea dakarrela ere argi dago... Heriotza eta zahartzeroari beldurrez bizitzeak, bizitza beldurti bat bizitzera garamatzala uste dut askotan gure aukerei dagokienez.

“Gizarte honetan hobetzeko dugun gauza nagusienetarikoa da heriotzarekiko harremana”

Argi dago (sorpresak sorpresa) norbera zaintzen garenaren arabera iritsiko garela zahartzeroa, eta orduan gauzak zailagoak izango direla egiteko, lanak, mugikortasuna... Baina momentu batean, egon nahi ez dugun modu batean baldin bagaude, ez al daukagu heriotz

duinerako eskubiderik? Ni behintzat asko lasaitzen nau pentsatzeak, nire buruarekin gustura ez baldin banago, besteei lana eman behar diedalako, ez dudalako ezerekin gozatzen (ohe batean geldirik adibidez) etab., ba nire heriotza aukeratzeko eskubidea erabili ahal badut, ez dudala nahi ez dudana egoerarik jasan beharko. Hori aldarrikatu nahi dut gaurko idazkiarekin, heriotza duinaren eskubidea.

Batzuk oraindik ez dute heriotzari buruzkoak entzun ere egin nahi. Nire ustez, gizarte honetan hobetzeko dugun gauza nagusienetarikoa da, heriotzarekiko (eta beraz bizitzarekiko) harremana. Denok hil behar gara. Zergatik ez gauzak ongi egiten saiatu, behar baina gehiago ez sufritzeko? Ez da ederra maite dugun norbaitek uzten gaituenean, baina ez da ederra maite dugun norbait sufritzen ikustea ere.

Osotasunean bizi den norbaitek momentu batean hil nahi duela aukeratzeak, errespetu osoa merezi du nire ustez. Niri pertsonalki, bizitzan ez zaidala behar baino gehiago sufritzea tokatuko pentsatzeko aukerak, sekulako alaitasuna eta bizi poza ematen dit. Hil poza ere beraz. Hala bedi, baina gauza bakoitza bere garaian! Segi bizi-bizi!



¿Mailope en castellano?

El día 3 de diciembre se celebrará el Día Internacional del Euskera. Los medios como el nuestro que publican su contenido únicamente en euskera suelen recibir habitualmente críticas y propuestas a favor del bilingüismo. En nuestro caso también han sido muchas las propuestas y opiniones recibidas para que en Mailope incluyamos contenido en castellano, pero nuestra respuesta siempre ha sido firme: ¡NO!

Desde el momento en el que se creó esta revista se decidió que sería únicamente en euskera, además desde entonces uno de los principales objetivos ha sido impulsar el euskera. Comparando con la oferta de prensa escrita en castellano que podemos encontrar en los quioscos, las oportunidades que tenemos los euskaldunes para recibir información y entretenimiento en euskera son muy limitados. Además Mailope es una herramienta perfecta para aquellas personas que se lanzan a aprender el idioma, ya que puede ser muy motivador leer las noticias más cercanas en euskera.

Con esta decisión no vamos en contra de nadie, si no a nuestro favor. Y aunque comuniquemos en euskera lo hacemos para todos, ya que incluimos noticias, colaboraciones, ayuda etc.

de todos los vecinos y vecinas, porque también necesitamos el apoyo de esos vecinos que aunque no hablen el idioma lo aprecian y queremos que sean parte de este proyecto.

En este número hemos incluido varios contenidos en castellano. Con motivo del Día Internacional del Euskera, varios de los medios locales de Tokikom hemos puesto en marcha esta iniciativa común. Parte de esta edición lo haremos en castellano para llegar a esos vecinos que no saben euskera. Y de la misma manera también nos gustaría crear un impacto en los lectores euskaldunes, para que pongan en valor qué perderíamos si nuestra revista fuera en castellano.

“Contamos la realidad local en nuestro idioma habitual”

¿TOKIKOM? Suena un poco a chino...

Alaitz Artolazabal.- Je, je; no, no lo es. Somos una sociedad que agrupa a 60 medios de comunicación locales. Somos medios muy distintos en tamaño, personalidad e incluso soporte físico, pero tenemos algunas características comunes: las más importantes son que trabajamos con información local, y que lo hacemos en euskera.

¿Por qué en euskera? ¿Eso no limita vuestro público?

Alaitz Artolazabal.- Bueno, es una de las características que nos define desde el principio, y nuestra razón de ser. La mayoría de los medios asociados a TOKIKOM surgieron en la década de 1980-90, como una herramienta para fomentar el uso del euskera. Por aquel entonces los grandes medios apenas prestaban atención a la información local, y surgió la idea de cubrir ese espacio con medios en euskera, hablando de lo que pasa al lado de casa, en tu calle, en tu barrio. La idea era ofrecer al público información muy cercana y hacerlo en euskera. De ese modo, facilitamos a la gente que conoce el idioma que lo utilice para hablar de su vida cotidiana, y a quienes no lo conocen, les damos un motivo práctico para acercarse a él.

Urko Aristi.- La decisión de ‘ocupar’ el espacio de la información local con medios monolingües en euskera ha supuesto también un pequeño oasis en el ámbito de los medios de comunicación. Basta con echar un vistazo a cualquier kiosko o a la parrilla de programación de televisión o radio para ver cuál es la oferta de entretenimiento e información en euskera en comparación con la que nos llega en otros idiomas: prensa, televisión, radio, internet... nos inundan con contenidos en castellano, francés, inglés... En ese panorama, poder ocupar el espacio de la información

local con medios en euskera supone un pequeño gran respiro para quienes queremos vivir con normalidad en nuestra lengua.

Pero de esa forma, priváis de esa información cercana a la mayoría que no conoce el idioma.

A.A.- Está claro que el público que no se maneja bien en euskera se pierde buena parte de nuestros contenidos, pero tratamos de que esa pérdida sea la menor posible. Desde sus inicios, los medios locales de TOKIKOM siempre han tenido en cuenta al público no euskaldun, y especialmente a la gente que está haciendo el esfuerzo de aprender el idioma. Por eso hemos tendido siempre a hacer un tratamiento muy gráfico de la información, utilizar un registro sencillo en la redacción... en nuestra vocación entra actuar como puente entre el público euskaldun y el que (aún) no domina bien el idioma. Y por suerte, eso es cada vez más fácil, puesto que cada vez son más los hogares en los

que al menos una persona es euskaldun o está en proceso de aprendizaje, y puede ayudar al resto a entender lo que publicamos. Es más, para esa gente que está aprendiendo, pensamos que es un buen aliciente tener un medio en euskera que le habla de su realidad más cercana.

U.A.- En todo caso, la idea no es marginar a nadie de ningún modo. La iniciativa de crear estos medios ha partido de asociaciones y grupos que funcionan habitualmente en euskera. Por decirlo de forma sencilla, el hecho de que estos medios funcionen en euskera no ha sido fruto de una decisión o una elección para dejar a nadie fuera, sino que ha venido de forma natural: sus promotores los han creado en euskera, porque es la lengua en la que se desenvuelven habitualmente.

Vuestros contenidos, entonces, se centrarán también en esa gente que funciona en euskera habitualmente.

U.A.- De ninguna manera. Siendo me-



Urko Aristi y Alaitz Artolazabal. Presidente y Directora de TOKIKOM.

dios locales, nos interesa todo lo que ocurre a nuestro alrededor. No vivimos en una isla, ni queremos hacerlo. Queremos contar lo que sucede en nuestro entorno, lo que hacen nuestros vecinos, y sabemos que buena parte de esa actividad se desarrolla en otras lenguas que no son el euskera. Somos medios de proximidad, y estamos abiertos a las aportaciones que nos lleguen de la gente de nuestro entorno, sea en el idioma que sea. Quien nos conoce, sabe perfectamente que nuestras puertas están abiertas para quien tenga algo interesante que contar... y quien no nos conoce, debería hacerlo cuanto antes, je, je.

A.A.- Todo esto además no es nada nuevo que nos estemos inventando hoy para la entrevista. Hoy por hoy, son muchas las personas que, sin saber euskera, se acercan regularmente a nuestros medios a compartir sus inquietudes, contarnos lo que están haciendo, o simplemente a pedirnos que felicitemos a un familiar o amigo. Los medios son un elemento más de las comunidades locales a las que pertenecen, y se desenvuelven con toda normalidad en ellas, en el idioma que haga falta, no se trata de nada traumático. Nuestras puertas están abiertas, y es mucha la gente que



las cruza con más o menos frecuencia. Es algo que agradecemos mucho, puesto que nos ayuda a ser medios mucho más completos, y a mejorar el servicio que ofrecemos.

Perdón por la insistencia pero, ¿ese servicio no mejoraría mucho haciéndolo en un idioma que entienda más gente?

A.A.- Depende de cómo definas el servicio que quieres dar. Nuestro objetivo es contar la actualidad local, desde el punto de vista local. Siguiendo la lógica de la pregunta, podríamos contar esa realidad en inglés, y entonces llegaríamos a un público muchísimo más extenso, pero para la gran mayoría de ese público potencial, nuestro

contenido no tendría absolutamente ninguna importancia. Queremos contar la realidad local desde el punto de vista local, y ese punto de vista incluye el idioma en el que nos expresamos. Entre otras cosas, como hemos dicho antes, porque es la lengua en la que nos desenvolvemos habitualmente. Renunciar a hacerlo de esa forma sería abrir las puertas a una uniformización que nos parece francamente triste y empobrecedora. Ya hay medios locales en otras lenguas, y pensamos que publicar los nuestros con nuestro enfoque, incluido el lingüístico, aporta color y riqueza al panorama. Hacerlo en otro idioma sólo para llegar a más gente acabaría con nuestra razón de ser.

BANAKA-BANAKA, DENAK. BIRZIKLATU ZURE TEEHak*

*Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak.

Eraman zure tresna zaharra, berria erosten duzun dendara, edo erabili itzazu zure mankomunitateko zerbitzuak.



Argibideak zure mankomunitatean:

Alto Araxes: (948 513 087)

Mendialdea: www.mendialdea.net (948 510 444)



Ekimen bultzatzaileak



Babesleak



Er hori TEEHak etiketa berriztatze, laguntza berriak berriztatze.



Comienza Bardoak 2016, el campeonato de bertsolaris por equipos de Navarra



los seis grupos que se hayan clasificados y la final se celebrará con tres grupos. En esta edición participarán 16 grupos formados por 3 y 4 bertsolaris, la persona encargada de plantear los temas y un organizador: Malerreka (1), Lesaka (2), Bera (1), Leitza (1), Larraun/Araitz(1), Sakana (2), Barañain (2), Barañain/Berriozar (1), Pamplona (3), Espinal (1) y Estella (1). La intención es juntar a bertsolaris experimentados con los principiantes.

En lo que respecta a nuestra zona, participará un grupo, "(Larraun da Araitz) BI DOZENA", formado por los bertsolaris Joana Ziganda, Aitor Irastortza, Luis Mari Larreta, Oskar Estanga, Juan Mari Irastortza y Arkaitz Goikoetxea. Presentarán los temas Ainhoa Iriarte y Kizkitza Mujika y en la organización participarán Igor Mitxaus, Mikel Huarte, Joseba Goikoetxea, Juan Kruz Martirena y Alfredo Dufur.

La Asociación de Bertsolaris ha organizado el campeonato de bertsolaris por equipos de Navarra, Bardoak 2016. La de este año es ya la tercera edición de este campeonato que toma el relevo al Campeonato Navarro de Bertsolaris con el objetivo de impulsar las escuelas de bertsolaris y ofrecer una oportunidad para que los aficionados y las aficionadas disfruten un año más del bersolarismo. Para ello han organizado actuaciones de diferentes formatos, ideologías y dinámicas, pero conservando la calidad y la

cercanía.

Bardoak 2016 se celebrará desde el 22 de enero hasta el 19 de marzo. Serán 23 actuaciones en total. El campeonato ten-

En la primera fase al grupo "(Larraun da Araitz) Bi dozena" le tocará actuar con los grupos de Bera y Pamplona. Una de esas actuaciones se celebrará en La-

"En la edición de este año participarán 16 grupos de bertsolaris en Bardoak 2016"

drá tres fases. En la primera participarán todos los grupos, en la segunda actuarán

arraun el 5 de febrero contra el grupo "Mirristi Drimtim" de Pamplona.

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazaris@hotmail.com

ANTONIO CARRARO

AMAIRU BAR

ETXKO PIZZAK,
KOPA BEREZIAK

948504352

Kantina Rock

948
60
48
21

KANTINA

bokatak, platerak eta...musika.....

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz

Lontxo Otamendi Artola



HAIZEAK ERAMANA

Ekudortik iritsitako kontuak
>Dani Pascual

“Hona iristerakoan konturatzen zara herrialde bakar batean zer nolako etnia aniztasuna dagoen”

Uztailaz geroztik dabil Ekuadorren lanean Dani Pascual lekunberriarra.



Noiztik zaude Milanen eta zertan zabilta?

Guayaquilen nago Ekuadorren. Uztailaren 29an etorri nintzen sei hilabeterako. Jatorri nafarreko bertako konpainia batentzako nabil lanean. Lan egiteko baimena berritzeko eskaera egingo dut abenduan eta 2016an nire hemengo egonaldia hiru hilabete gehiago luzatuko dela aurreikusten dut.

Zergatik aukeratu zenuen herri edo hiri hori? Edo bertara joateko aukera nolatan sortu zitzaizun?

Guayaquilen lan egitea eskaini zidatelako etorri nintzen. Iruñeko ezagun baten bitartez izan nuen aukera honen berri.

Zein da zure egunerokoa bertan?

Hasiera gogorra izan zen, klimara egokitzea, janaria, lan egiteko modua... Baina orain nire egunerokoa nahiko lasaia da eta nire denbora libre Guayaquil eta Ekuadorreko gainontzeko txokoak ezagutzeko aprobetxatzen dut.

Nolakoa da bertako gizartea?

Gizarte taldeen arteko ezberdintasun ekonomikoak izugarria da hemen, klase sozial altukoak gutxi batzuk dira, erdi mailako askorik ere ez dago, populazioaren gehiengoak ozta-ozta bizitzeko baino ez dauka. Ezberdintasun hori hirigintzan argi ikusten da, luxuzko eraikinez osatutako auzoak nahiz txabolaz betetako guneak aurki daitezke. Hori dela eta eremu arriskutsu asko daude.

Ekuadorrek duen beste ezaugarrietako bat pluraltasun etnikoa da eta sinesmen erlijioso sendoak dituzte. Bestalde, zaletasun nagusiak merkataritza gune handietara joatea eta futbola daude, selekzio nazionalaren jarraitzaile sutsuak dira.

Zer da gehien harritu zaituena?

Ezberdintasun etniko eta kulturalak. Hona iristerakoan konturatzen zara herrialde bakar batean zer nolako etnia aniztasuna dagoen, oso ezaugarri ezberdinekin.

Janariarekin zer moduz moldatzen zara?

Janaria lehendabiziko egunetik arazoa izan da niretzat, plater guztiei martorria (cilantro) botatzen diote eta ez naiz ohitzen. Kontu handi ibili behar da hemen non eta zer jaten duzunarekin, klima tropikala izanik janarian bakteriak hazteko arriskua baitago.

Eta hizkuntzarekin?

Hizkuntzarekin ongi moldatzen naiz. Hasieran erabiltzen dituzten zenbait esamolde eta hitz ez nituen ulertzen, baina dagoeneko ohitu naiz.

Bertara joateko asmoa duen bati zer gomendatuko zenioke?

Ekuador kultura eta paisaia aniztasun handiko herrialdea da. Oso toki erakargarriak ditu, Galapago Irlak, iparraldeko sumendiak, ekialdeko hondartzak, amazoniar oihana, Andetako mendikatea... Eta hona etorri gero Quito edo Cuenca bezalako hiriak bisitatzea ezinbestekoa da.

Eta zer ez zenioke gomendatuko?

Maila ekonomiko baxuko eremuetan ibiltzea, behe auzoetatik edo trinitaria irlara joatea.

Etzekoei, lagunei edo hemen dagoen inori mezuren bat bidali nahi badiozu, aprobetxatu!

Laster elkar ikusiko dugula eta Eguberrietako oporretarako han izango naizela. Eta orokorrean esan, ez dezatela bizitzak eskaintzen dien aukera bakar bati ere ihes egiten utzi.

	1	2	3			
5	7	8	9	10		
13	14	15	16	17		
20	21	22	23	24		
27	28	29	30	31		

beltza

F. Gutikunst. M. delgado y hcia.

	1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14	
15	16	17	18	19	20	21	
22	23	24	25	26	27	28	
29							

otsaila

F. Gutikunst. M. delgado y hcia.

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

martxoa

F. Gutikunst. M. delgado y hcia.



	1	2	3			
6	7	8	9	10		
13	14	15	16	17		
20	21	22	23	24		
27	28	29	30			

apirila

F. Gutikunst. M. delgado y hcia.

							1
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30	31						

maiatza

F. Gutikunst. M. delgado y hcia.

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

ekaina

F. Gutikunst. M. delgado y hcia.

2 3 4
9 10 11
16 17 18
23 24 25
30

Philadelphi

Mailope 2016



2 3 4
9 10 11
16 17 18
23 24 25
30 31

ua

Philadelphi



Mailope 2016

4 5 6
11 12 13
18 19 20
25 26 27

hil

F. Gultkuns



4 5
11 12
18 19 20
25 26 27

ap

F. Gultkuns



Eraikin efiziente eta jasangarriei buruzko jardunaldia

Eraikinen gaineko efizientziari buruzko jardunaldia eskainiko dute hurrengo abenduaren 17an, arratsaldeko 19:30etan, Lekunberriko Plazaola geltokian.

Jardunaldian Passivhaus Estandarra izenez ezagutzen den eraikuntza moten nondik norakoak herritarrei ezagutaraztea da helburua. Joan den martxoan Mailope Aldizkariko 212. alean kaleratu genuen Koldo Monrealeak Lekunberriin egingdako etxebizitza pasiboari edo kontsumo baxuko eraikinei buruzko elkarrizketa.

Koldo, bera, izanen da hain zuzen ere Plazaolan eskainiko duten jardunaldian arituko den hiru adituetako bat. Berekin batera Pedro Mariñelarena eta Germán Velázquez Diseinatzaile Ziurtagaria duten Arkitektoak izanen dira.

Jardunaldia Edificación Passivhaus Plataformak antolatu du, irabazi asmorik gabeko erakunde bat da eraikuntza mota horiek sustatzea eta zabaltzea helburu duena. Lekunberriko Udalaren, Plazaola Partzuergo Turistikoaren eta bestelako enpresa sustatzaileen laguntza ere izan du.

Lehenik adituek halako eraikin mota bat eraikitzeko jakin beharrekoak eta nondik norakoak azalduko dituzte, zertan datzan, hartzen diren neurriak, materiala, prezioa eta bestelako intereseko datuak. Bestalde, halako eraikin batean bizitzeak dituen onurei eta funtzionamenduari buruzko azalpenak eskainiko dituzte. Gainera, amaieran zalantzak argitu eta eztabaidatzeko mahai-inguru bat egitea ere aurreikusten dute.

Eraikuntza enpresetako profesionalei, arkitekto, ingeniari eta bestelako gremioetako langileak hurbilduko direla aurreikusten duten arren, antolatzaileek batez ere herritarrei zuzendutako jardunaldia izatea nahi dute. Etxebizitza bat eraiki nahi duen edo etorkizunean eraikitzeko interesa duen edonor nahiz etxebizitza efiziente eta jasangarriei buruzko jakinmina duen guztiari luzatzen diete gonbidapena.



SAStraka
auto 4x4

Ibilgailuen Mekanika Orokorra
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9
31870 Lekunberri

948.60.48.06 Inigo
www.sastraka4x4.com

M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

**Diario Vasco eta
Diario de Navarra
Korrespontsala**

948513056
699179437

**aitz
berri**

edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890

948 513 083
696 732 290

aitzberri@hotmail.com



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxean

Enaitz Iriarte Olano

Azaroaren 8an, 5 urte!!!!!!
Abenduaren 19an urtea beteko du.

Zorionak enaitz
zuri zorionak
poza ekarri zuen
zure etorrerak
muxu goxo guztiak
zuretzat izebak
irribarrea dauka
zintzilik amonak

zorionak pottoki!!!
zorionak familia!!!



Enaitz Iriarte Olano

Abenduaren 19an urte 1.
ZORIONAK txapeldun!!
Muxu potolo bat aitaxo eta
amatxon partez.



Mikel Buldain Garzaron
Abenduaren 13an, 6 urte.
Zorionak mutiko eta egun
ona pasa!
Muxu handi bat.
Aita, ama eta Ane.



June eta Urko Tolosa Iraola

Urkok azaroaren 10ean 3 urte bete zituen
eta June abenduaren 14ean 6 urte beteko
ditu.

Zorionak bikote. Jarraitu orain bezain
maitagarriak izaten.
Muxu potolo bana aitaxo eta amatxoren
partez.

Oinatz Lóciga Muñoz

Zorionak Oinatz!!!
Abenduaren 5ean urtebete
egingo duzu.
Aita eta amarentzako urterik
zoriontsuena!!
Muxu handi bat.



Aner Arraztio Estanga

Zorionak Aner!!
Abenduaren 7an 7 urte beteko dituzu.
MUXU HAUNDI bat ETXEKOEN partez..



Zorionak Idoia!

Abenduak 26.
Zu bai alaba, emaztea, ama eta laguna!
Ospatuko dugu elkarrekin eguna!
Jantziko dugu denok gona!
Jarriaz aurpegi ona!
Aupa zu eta zure maitasuna!
Martin, Joane,
aiton-amonak eta Gaintzako
zure lagunak.



Zorionak Goiuri!!

Abenduak 23.
Egin dezala nahiko euri!
Etxe barruan goxo exeri!
Muxu potxoluak zuri!
Emanaz goxo ugari!
Ederra da zure irrifarre hori!!!
Martin, Joane, aiton-amonak eta Gain-
tzako zure lagunak..



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxean



Markel eta Uraitz Ariztimuño Begiristain
Azaroaren 28an eta 23an, 13 eta 11 urte.
Zorionak bikote!!!
Jarraitu beti bezain jator izaten.
Egun on bat pasa ezazue zuen urte betetze egunetan.
Muxu handi bat familiaren partez.

Zorionak Alain!
Abenduaren 1ean, 10 urte.
Atalluko familiaren partetik muxu haundi bat!



Josu Iribarren Saigos
Abenduaren 13an, 8 urte.
Lekunberriko baterijole, dantzari eta futbolari dibertigarriari.
Zure familia.

Kalean da Mailoperen aldeko Oneka marrazoaren DVDa

Aurreratu genizuen bezala, Ene Kantak taldeak lan berri bat egin du, Oneka Marrazoaren ikuskizunaren DVDa kaleratu berri du. Urriaren 3an grabatu zuten ikuskizuna Barañaingo Auditorioan eta joan den hilaren 25ean egin zuten aurkezpena Iruñeko Elkar Megadendan.

Proiektu honekin gure aldizkariaren alde egin nahi du taldeak eta guretzat opari ederra da 25 urte betetzen ditugun honetan. Barañaingo emanaldira erraldoiak, Basajaun eta Tartalo ere hurbildu ziren eta eta denon artean ikuskizun polita osatu zuten.

Dagoeneko 2.000 ale kaleratu dituzte eta ohiko tokietan dago salgai 12 euroren truke. Eguberrietarako opari ezin hobea da, erosi ezazu zurea!



Informazio gehiago: www.enekantak.com
Aurrerapena ikusgai: <https://youtu.be/3jiEmbN4-MU>

- 21 -


GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA


urrutia
enea

etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADI!!! TLF BERRIA:
948 51 30 32


panaderia okindegia
GALBURU
Tel: 948 50 47 42 - 609 720 313
Alde Zaharra, 59 - 31870 LEKUNBERRI (Nafarroa)

Araitz-Beteluko Eguna

Araitz eta Beteluko Eguna ospatuko dute Betelun abenduaren 8an. Araitz, Betelu eta Lekunberriko txistulariekin goiz-soinuarekin ekingo diote festa egunari. Goizean zehar artisau azoka, musika eta taloak izanen dira plaza eta eguerdian herriko elkarteetan bazkaria. Animatu eta hurbildu zaitez!

Hizkuntza-eskubideen ur-raketei aurre egiteko eredia

ETB1-eko Herri txiki infernu handi saioa grabatu zuten joan den hilean Lekunberrin. Hainbat herritarrek parte hartu zuten, zahar eta gazte. Ondoren Plazaola Kiroldegian egin zuten aurkezpena. Hilaren 22an emititu zuten telebistan. Ikusgai dago telebista kateko Nahieran atarian: <http://www.eitb.tv/eu/>

Lekunberri, herri txiki infernu handi

ETB1-eko Herri txiki infernu handi saioa grabatu zuten joan den hilean Lekunberrin. Hainbat herritarrek parte hartu zuten, zahar eta gazte. Ondoren Plazaola Kiroldegian egin zuten aurkezpena. Hilaren 22an emititu zuten telebistan. Ikusgai dago telebista kateko Nahieran atarian: <http://www.eitb.tv/eu/>

Nirea zuretzat eta zurea niretzat

Joan den hilean jostailu trukaketa azoka egin zuten Betelun. Aurretik haur eta gaztetxoek eskolara euren jostailuak eraman zituzten eta trukean txartel bat jaso zuten azokaren egunean erabiltzeko eta beste jostailu bat hartzeko. Iosune Zabala, Gizarte Zerbitzuetako teknikaria: "Jende asko hurbildu da eta oso pozik gaudu, bilketa handia egin da eta haurrak jolasten eta gustora ibili dira".

Bestalde, abenduan, Elkartasun astea antolatuko dute Lekunberriko Ibarberri eskolan. Bertan jostailuak eta janaria bilduko dute Senegaleko haurrei bidaltzeko.



Hauteskunde orokorrekin batera hautatuko dira zenbait kontzeju eta udal ordezkari

Datorren abenduaren 20an maiatzeko hauteskundeetan zerrendagairik aurkeztu ez zuten udal eta kontzejuetako ordezkariak hautatuko dira hauteskunde orokorrekin batera. Maiatzean eskualdeko bederatzi kontzeju (Baraibar, Uitz, Errazkin, Iribas, Mugiro, Oderitz, Arribe-Atallu, Azkarate eta Intza) eta Araizko Udala gelditu zien ordezkariak hautatu gabe. Bigarren txanda honetan horietatik lauek lortu dute zerrenda osatzea:

BARAIBAR

BARARTARRAK

1. IÑAKI OYARZUN ARANGOA
2. MIKEL HUARTE MARTIJA
3. JUAN CARLOS ESTEBAN UGALDE
4. LORENZO IRIARTE SAIGOS
5. JOSE MARÍA OYARZABAL ANSORENA

ODERITZ

ODERIZTARRAK

1. LORENZO ECHARRI IRIBARREN
2. IZASKUN ALDAIA LEGARRA
3. IGOR GALARZA BEUNZA

ERRAZKIN

ERRAZKINDARRAK

1. IÑAKI MALKORRA ARAOLAZA
2. IÑIGO OREJA AZCONA
3. DOMINGO OTERMIN BERAZA
4. IRATI OREJA AZCONA
5. KOLDO MARTINIKORENA MATXAIN

ARAITZ

EH BILDU (EH BILDU)

1. JOSÉ MANUEL ZUBILLAGA MUGUERZA
2. MAIDER AGUIRREBARRENA BELDARRAIN
3. URKO GOROSTIDI MUGICA
4. KOLDO NUÑEZ BETELU
5. AITOR COBOS PERALTO
6. JOSEBA SALSAMENDI OTERMIN
7. MARIA IZASKUN AUZMENDI AMONDARAIN

Datorren abenduaren 20an maiatzeko hauteskundeetan zerrendagairik aurkeztu ez zuten udal eta kontzejuetako ordezkariak hautatuko dira hauteskunde orokorrekin batera. Maiatzean eskualdeko bederatzi kontzeju (Baraibar, Uitz, Errazkin, Iribas, Mugiro, Oderitz, Arribe-Atallu, Azkarate eta Intza) eta Araizko Udala gelditu zien ordezkariak hautatu gabe. Bigarren txanda honetan horietatik lauek lortu dute zerrenda osatzea:



ALIPROX
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI



**SUAKONTROL
LEKUNBERRI**
*Suaren
kontrako
plakak*
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es



Juanjo Gaité García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

Sanmartinak

Astearen erdi-erdian tokatu zen aurten San Martin eguna, asteazkenarekin. Horregatik, gaintzarrekin aurreko asteburuan ospatu zituzten herriko festak eta aldazarrek ondoren. Gaintzarrek herri afariarekin ekin zioten jaiei. Aurtengo berrikuntza larunbatean herritar batzuek eskaini zuten aurtengo iñauterietako bideo emanaldia izan zen.

Aldatzen berriz, Nafarroako goma gaineko sokatira Txapelketa eta Sakanako harri-jasotzaile Eskolako eta Nafarroako Txingako txapeldunen erakustaldia izan zuten besteak beste, eta aurtengo jaiak behar bezala agurtzeko Julio Soto eta Iker Zubeldiaren bertso saioa.



Euskararen erabileran eragiten

Zortzi gaztek parte hartu zuten joan den hilaren 20an Satorzulo lokalean eskaini zuten Zergatik ez? Tailerrean. Topaguneko Mikel Ozaita teknikariak gidatu zuen saioa. Helburua hiztun gisa, euskararen erabilera sozialaren inguruko hausnarketa egitea zen, aukeratzen ditugun hizkuntza jarrerak duten eraginaz hausnartzea, euskararekiko jarrera baikorrak sustatzea eta euskararen errealitatearen eta etorkizunaren ikuspegi baikorra azalartzea. Tailerraren hasieran ikuspegi zabalago batetik hizkuntzen egoeren berri izan zuten, munduan 6,000 hizkuntza inguru hitz egiten dira, tartean euskara. Ondoren gurean gazteek bizi duten egunerokoan egin ditzaketen keinu txikiekin hizkuntzan nola eragin dezaketen aztertu zuten.

25 urte, 25 kilometro

Abenduaren 13an Mailope lasterka, Baraibartik Atallura

Abenduaren 5erako aurreikusia zegoen arren, abenduaren 13ra aldatu aldatu dugu Mailope lasterka. Goizeko 11:00etan Baraibarren emanen zaio hasiera lasterketari eta Atallun amaituko da. 25 kilometroko ibilbidea izanen da aldizkariaren 25. urteurrenagatik.

Dagoeneko kilometro erdiak salgai daude 50 euroren truke. Azpiroztik beherakoak Araizko udaletxean daude eskuragarri eta Azpiroztik gorakoak Mitxausean.

Mugi eta erosi ezazue Mailoperen aldeko kilometro erdia, koadrilan, taldeka, lankideekin, familiarekin... Ibilbide osoa egiten duenarentzako oparia egonen da!



Mailoperen aldeko bertso-afaria eta gaupasa

Araitz eta Beteluko gazte koadrila batek antolatuta Mailoperen aldeko bertso-afaria eta gaupasa izanen da abenduaren 5ean Atallun. Afaria Atalluko elkartearen izanen da. Afalostean Julen zelaieta eta Aitor Sarriegi arituko dira bertsoetan. Gauean gaupasa izanen da DJ Txokorekin eta goizaldeko 02:00etan txupitofesta. Dagoeneko afarirako sarrerak salgai daude 15 eurotan ohiko lekuetan.

Hamaika bikotek parte hartu dute Mailoperen aldeko mus txapelketan

Sanmartinak aprobetxatuz Mailoperen aldeko mus txapelketa egin genuen joan den hilean. Gaintzan zortzi bikotek parte hartu zuten eta Aldatzen hiru baino ez ziren aurkeztu. Kanporaketa bakoitzeko bi bikote sailkatu ziren Kantinan jokatu zen finalera. Azkenean Xabier Satrustegik eta Iñigo Garmendiak eraman zuten axuria etxera. Zorionak!



asegurogintza
aseguru aholkulariak
Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratu egotea da

Telefona: 943652220. asegurogintza@aseguroak.net
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

CONSTRUCCIONES GAÑARBE ERAIKUNTZAK S.L.

Etxebizitzaren eraikuntza eta errehabilitazioa

948 504 351 - 616 457 540
construccionesganarbe@gmail.com
Oztegin kalea 2, Lekunberri

Eskualdeko hamar lagunek amaitu zuten Behobia-Donostia lasterketa

30.000 korrikalarik baino gehiagok parte hartu zuten 51. edizioan. Ohi baino bero handiagoa egin zuen eta hainbat lagun eraman zituzten ospitalera berokolpeak jota. Hildako bat ere izan zen, José Javier Suescun. 31 urteko nafarrak bihotz-biriketako geldialdia izan zuen. 2002. urtetik hona 20 kilometroko lasterketa honetan hiltzen den laugarren korrikalaria da.

Helmugaratzea lortu zuten lasterkariei dagokienez, Bartzelonako Carles Castillejo izan zen lehena, ordubete, minutu bat eta hamabi segundoko denborarekin. Emakumezkoetan berriz, Extremadurako Raquel Gómez izan da azkarrena, ordubete, hamahiru minutu eta hogeita hemezortzi segundotan lortu zuen lasterketa amaitzea. Behean eskualdeko korrikalarien denborak.



IZEN-ABIZENA	HERRIA	DENBORA
ANDER ARRAZTIO	BETELU	01:19:47
JULEN ELORDI	ARRIBE	01:26:17
LUIS MARI LARRETA	ALDATZ	01:28:32
ANGEL SOROA	LEKUNBERRI	01:29:17
IMANOL JAKA	ETXARRI	01:29:49
MADDI SOTIL	BETELU	01:40:08
XABIER ZUBILLAGA	LEKUNBERRI	01:42:06
JUAN MIGUEL ZUBILLAGA	BETELU	01:55:52
IBAI BARBERENA	LEKUNBERRI	02:02:32
CRISTINA TORRES	ETXARRI	02:11:33

2016an Arabako Lautadan ibiliko dira Ttutturreko mendizaleak



Ttutturre Kirol Elkarteko kideek dagoeneko zehaztu dituzte 2016. urtean egingo dituzten irteerak. Gipuzkoako buelta amaituko due martxoan eta Arabako Lautadako ibilbideak egiteari ekingo diote.

Horrez gain, otsailean urteroko bazkaria egingen dute Oderitzen, irailean Añiscloko arroileko ibilbidea, urrian jardunaldi mikologikoa...

Bestalde, Ttutturre Kirol Elkartek akordio bat hitzartu du Tolosako Aralar Kirolak dendarekin eta horri esker Elkarteko bazkideek %15eko beherapena izanen dute Aralar Kirolak dendetan (outlet produktuetan izan ezik).

Animatu eta egin zaitetz bazkide!


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
 ZURGINTZA OROKORRA
 INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
 Telefonoa eta Faxa: 948507343
 carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
 Aralar kalea, 41
 Lekunberri

OGI BERRI
 OKIN ARTISAUAK 948604884

**AURRERA
 TABERNA
 ARALAR, 15**
948 60 47 24

**TAXI
 SOROA**
 609 168 217
 Bederatzi plaza

Bailarako pilotari profesional ohiak omenduko ditu Larraungo Pilota Elkartek

Azaroaren 25erako aurreikusia zegoen arren, abenduaren 19ra atzeratu dute antolatzaileek Larraun Pilota Elkartean ikasturte berriko aurkezpena. Egun horretan, arratsaldeko 16:30tan, Lekunberriko pilotalekuan, Larraungo txapelketako kadeteen finala jokatu dute, ondoren afizionatuek lau t'erdian arituko dira (Joanes Bakaikua eta Mattin Ezkurdia) eta azkenik afizionatuen binakako partida izanen da (Xuban Armendariz eta Lenitz Galartza, Ibai Iriarte eta Julen Martijaren aurka). Partiduen deskantsuan, elkarteko Zuzendaritza Batzordea, pilotariak, ekipazioa eta laguntzaileak aurkeztuko dituzte. Gainera, Lekunberriko jaietan zozketatu zen saskiaren irabazlerik atera ezenez zenbaki berri bat ateratzeko zozketa egingen dute. Bestalde, pilotari profesionalak izandako larraundarrak omenduko dituzte egun horretan.



Ruben Saralegi lehen mailara igo da aizkoran

Urriaren 30ean Elizondoko pilotalekuan jokatu zen Bigarren Mailako Euskadiko Txapelketako finala. Sei aizkolarik parte hartu zuten, Iker Vicente, Ruben Saralegi, Luis Txapartegi, Aratz Mugertza, Jesus Mari Mujika eta Arkaitz Jauregi. Aizkolarik bakoitzak sei pago enbor moztu behar izan zituen. Iker Vicente izan zen txapelduna eta Ruben Saralegi bigarren gelditu zen minutu bat eta zortzi segundoko aldearekin. Datorren urtean bi aizkolarik lehen mailan arituko dira.

Bestalde, joan den hilaren 21ean 2015eko Urreko Aizkolarik Kopako kanporaketa bat jokatu zuten Betelun. Bertan Ruben Saralegi Ugaitz Mugertzaren aurka aritu zen. Azkenean Saralegi izan zen 10 kanaerdi mozten azkarrena. Hurrengo kanporaketa Leitzañan izanen da eta bertan Jon Rekondoren aurka egin beharko du.

- 27 -



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

“Taldean lan eginez Udala aurrera eramango dugula uste dut”

Natalia Azkona izendatu dute Lekunberriko Udaleko alkate, Mikel Mikeok karguari uko egin ondoren.

Noiztik bizi zara Lekunberrin Natalia?
Ni Uhartekoa naiz, baina 14 urte daramatzat hemen bizitzen. Aurten 25 urte egin ditu lehen aldiz Lekunberriko festetara etorri nintzela.

Bi legegintzaldi egin dituzu Lekunberri Taldeko zinegotzi...

Bai, 2007tik 2011ra, 2011tik 2015era. Betidanik gustatu izan zait herrian parte hartzea eta behin Inma Etxarri etorri zitzaidan Kulturako zinegotzi kargua betetzeko nigan pentsatu zutela esanez. Hiru seme-alaba txiki nituen orduan, baina animatu egin nintzen. Geroztik, kultur arloaz, gizarte zerbitzuaz eta ikastetxeko gaiez arduratu naiz.

Eta zer moduzko balorazioa egiten duzu orain arteko ibilbideaz?

Ni gustora ibili naiz, ongi. Bizipen onak eta txarrak ditut, baina gauza guztieta-

tik ikasten da eta pozik nago.

Nola bizi izan duzu Joxe Mari Aierdiren dimisioa?


Hauteskundeen aurretik zurrumurruren bat entzuten genuen, baina oso zaila zen hauteskundeak Geroa Baik irabaziko zituela eta ondoren gertatutako alderdien akordioak aurreikustea. Behin Joxe Marik alkatetza uzteko erabakia irmoa izan zenean, hasiera batean kargua Mikel Mikeok har zezan zen asmoa, bera baitzen bigarren zerrendagaia. Azkenean Lekunberriko jaien ondotik Mikelek kargua ikasketekin uztartzeko zailtasuna zela eta atzera egin zuen. Ni zerrendan bere atzetik nengoen eta aurrera egitea erabaki nuen.

Erabat konbentzita?

Bai, gustatzen zaidan lan bat da. Ez da



erraza izango 31 urtez alkatetzan egon den pertsona bat ordezkatzea, baina gogotsu nago. Taldean lan egin e z



uda- la aurre- ra eramango dugula uste dut. Gainera, dagoeneko zortzi urte daramatzat zinegotzi eta urte hauetan ezagututako pertsonen laguntza ere izango dut, Nafarroako Gobernuan izango ditugu Joxe Mari bera, Maitena Ezkutari edo Ruben Goñi adibidez. Pertsonalki izango dudan erronka handienetako bat jendaurrean hitz egitea izango da.

Azaroaren 12an hartu zenuen kargua ofizialki...

Ez-ohiko batzarra egin genuen. Lehenik Patxi Centenok zinegotzi kargua hartu zuen eta ondoren nire izendapena egin genuen.



Eta zer moduzkoak izan dira lehenengo egun hauek?

Ongi, ikasten nabil. Orain arte, hein handi batean, Joxe Marik baino kontrolatzen ez zituen gai batzuk sakonki aztertu behar izan ditut, urte hauetan nire eskumenekoak ez ziren gaiekin egunean jartzeko.

Legegintzaldi berri honetan zeintzuk izango dira Lekunberriko Udalaren erronkak?

Momentu honetan erronka nagusietako bat gazte zentroa amaitu eta horrekin aurrera egitea da. Bestalde, orain industrialdeko lursailak saldu berri ditugu eta zabaltzeko proiektu berri bat sortzen saiatuko gara.

Gazte zentroaren zorra zertan da momentu honetan?

Erreklamatu zizkiguten 400.000 euroko zorraren erdia ordaindu dugu jada eta errekurtsioa jarrita dagoenez epailearen erabakiaren zain gaude. Baina egin beharko duguna, lehenik zorra kitatzea izango da eta gero pixkanaka proiektua amaitzen joango gara. Diru-laguntzaren bat eskuratzeko aukerarik suertatzen bada lortzen saiatuz eta bestela udal aurrekontuaren zati batekin pixkanaka aurrera eginez.

Eguneko zentroak irekita jarraitzen du...

Bai, jende berria ari da sartzen eta poztekoa da. Oso gai gatazkatsua izan zen hura ere, baina badirudi pixkanaka zerbitzua probatzeko interesa pizten ari dela gurean eta inguruan.

Bestalde, uztailean Plazaola Partzuergo Turistikoko lehendakari izendatu zintuzten. Nolatan?

Bai. Hori ere hartu beharreko ardu-



“Ez da erraza izango 31 urtez alkatetzan egon den pertsona bat ordezkaria”

ra bat izan zen eta hasieran oso pozik hartu nuen kargua, gerente lanetan zebilen Maitena Ezkutari ezagutzen nuelako. Baina handik hamar egunetara Nafarroako Gobernuo Turismo eta Merkataritza Zuzendari izendatu zutenaren berri eman zidan eta nahiko gogorra izan zen berarengandik ikasteko aukerarik gabe gelditu nintzelako eta gerente berriaren lanpostua betetzeko deialdia ere prestatu behar izan genuen... Azkenean urrian Gustavo Ortiz de Barrón hasi zen bere lekuan eta dagoeneko buru-belarri gabiltza lanean, besteak beste EuroVelo proiektuarekin.

Zer da EuroVelo proiektua?

Europako bide berdeen sare bat osatzeko proiektua da. Orain Biarritz eta Gipuzkoa lotzeko ahaleginetan dabilta eta asmoa ondoren Baztan-Bidasoa, Plazaolarekin lotu eta bide berdea Iruñeraino luzatzea da, gero handik Santiago bidearekin Portugalera osatuko da. Horrek dudarik gabe bultzada eta bizi handiagoa emango dio Plazaolari.

Orain gutxi sari bat ere eman zizuten...

Bai, urriaren 15ean Namurren izan ginen, Belgikan eta Bide Berdeen Europako Elkartearen “Bikaintasunaren” bigarren saria eman ziguten. Urte guzti hauetan egindako lanaren eta lorpenen aitortza da sari hau partzuergoarentzat. Gainera beste bide berdeak ezagutu eta geurea ezagutarazteko ere balio izan du.

Lagundu Mailope!
Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

ekin
rotulación

GARAZ
Zure behar eta ordutegira moldatuko gara
ETORRI ETA INFORMIA ZAITEZU!
Mate
erdi eta goi zikloetarako prestaketa
Fisika Inglesa
lengua kimika
948 504 450
648253522
eusquera marrazketa teknikoa
historia
unibertsitate mailako ikasgaiak

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·
PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

INFORMATIKA BETELU
ordenagailuen salmenta eta konpontzea
sareen instalazioa eta konfigurazioa
634 551 743
informatika.betelu@gmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri



> Plazaola Partzuergoa



20 URTE BIDEAN

IBILBIDEAK AUKERAN

Aintzinako Plazaola trenak Iruñea eta Donostia lotzen zituen; Plazaola Partzuergo Turistikoak sustatu du 85 kilometroko bide hori berreskuratzea.

Horretarako, Ingurumen Ministerioak diruz lagundu du eta toki-entitateek zein Nafarroako Gobernuak parte hartu dute. Beraiei esker berreskuratu dira lehenengo fasean 7km (Mugiro-Lekunberri-Uitzzi), bigarrenean 12km (Uitziko tunela-Leitza-Gipuzkoako muga) eta hirugarrenean 2.700m (Uitziko tunela).

Imozko zati berria

Plazaolaren ibilbide zaharreko natur bideak (Imozko zatia) 6.337 m-ko luzera dauka. NA-1300 eta A-15 errepideak eraiki zirenean, trenak igarotzen zituen hainbat zati okupatuak izan ziren. Hori dela eta, posible izan den neurrian, trenak egiten zuten ibilbidea jarraitu da, Urritzako tunela eta Larraun ibaia zeharkatzen zuen zubia berreskuratuz.

LATASA-SAN MIGUELTXO: 4KM

Latasatik Lekunberrirako norabidea hartzen da. Urritzako tunela pasa eta arretaz errepidea gurutzatuz, autobia gainera igarotzen den bidexka bat hartuta gaztainadi batera iristen da. Malda hori pasa eta gero, (ibilbide zaharren ordez) berriz ere NA-1300 ondoan doan bidera bueltatzen da. Igoera suabe bat pasatu eta gero, ibilbidea San Migeltxo aldapa izeneko mahaiez eta bankuz osaturiko atsedengunera iristen da.

LATASA – KAXARNA: 2,5KM

Latasatik Irurtzunerako norabidea hartzen da, Larraun ibaia gurutzatzen duen pasabidea zeharkatuz. 2,5km ondoren, Irurtzunera iritsi baino lehen, Kaxarna izeneko Larraun ibaian dagoen presa batera iristen da, non atsedengune bat dago. Kontuz! Errepidea zenbait alditan gurutzatu beharra da.



abendua

- 3-6** Lekunberri: Bigarren eskuko azoka frontoian
- 3** Euskararen Nazioarteko Eguna.
- 13** Baraibar: Mailope laisterka Baraibartik-Ata-ura. Irteera goizeko 11:00etan.
- 13** Lekunberri: Zamarra eta aterkia kontzertua Kantinan, arratsaldeko 19:00etan. Sarrera 3 eurotan.
- 19** Larraungo Pilota Elkartearen aurkezpena, afizionatuen pilota partidak eta profesional ohiei omenaldia.
- 20** Hauteskunde orokorrak.
- 24** Olentzeroren etorrera.
- 27** Lekunberri: Abesbatzaren Eguberrietako kontzertua elizan, eguerdiko 11:45etan.

agenda

merkatu txikia

ALOKAIRUAN

- Pisua alokatzen da Betelun, 300 € hileko: Altzairuz hornitua, berogailua, 3 gela, sukaldea, komuna eta 2 egongela. (606 375 855).

- Pisua alokatzen da Betelun. 80m2-ko pisua altzairuz hornitua. Telefono zenbakia: 690 006 283 (Mila).

- VPO pisua salgai Atallun. Bizitzera sartzeko prest. 90 m2ko bizitza, garajea eta trasteroa. 115.000€. 646179746 (Miren).

ADI!

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era. Publizitate eskariak bi hilabetez egongo dira jarrita, ondoren kontrako abisurik jasotzen ez badugu kendu egingo ditugu.

Araitz Beteluko eguna 2015

Goiz-soinua.
Araitz-Beteluko eta Lekunberriko txistulariak, artisau azoka, musika, taloak, bazkaria elkartean

Betelun, abenduaren 8an

Ibilbidea:
Mailope Lasterka
Abenduak 13

Ondoren, afarria eta gaupasa!

Kilometro erdiak salgai Araizko udaletxean eta Mitxausean



HURBIL DITUGU EGUBERRIAK. DENDA HOBERENAK ERE BAI

*denda
txikiak,
pertsone
handiak*